

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 3 PEZETA

Izkuntza ta etnia Olaetxea jaunaren itzaldiari oar batzuk

Etnia itzak duen zabaltasuna ez da erreza itz gutxitan eta uste gutxitan mugatzea. Orta, oraindik saio asko egin bearra dago, batez ere molde oten barnean gure egotzari buruz. Noronek ere esana det izkuntza ez dela etnia guzira ta, etnialik aparte, gizonaren biliztarantzat beste gauza asko dirala izkuntza (edozein izkuntza) baino bearezkoagoak.

Bearezkoagoak diran gauza olean, gaurko, ez naiz sartuko. Gaur, izkuntza batek etnia aldetik duan balioaretaaz jardungo naiz; ain zuzen ere gure izkuntzak.

El concepto del vasco y de lo vasco galari buruz mintzatu omen san Juan Bautista Olaetxea jaunra "XXIII Fiestas Euskaras"-en sarreran, irailaren 4-ko "La Voz de España" ekarren Jahier de Aranburuaren artikulu batek dionez.

Olaetxea jaunaren ustez —Aranburu'k dionez—, euskera utzita ere oiturak berdin jarraitzen omen dute; zergaitik, euskera galduta eririk ez omen dute euskotar gitorik galduta. Gero, ez dakit nola, izkuntza ta etnia korapilatzen dituzte, euskera gabe ere etnialik berditu jarraituko zuela esanas.

Aranburu jaunak diola orreia baldin bada, oar batzuk argi ta garbi jarzeta nai nitzuke, Beraz, asteke, esano diot Olaetxea jaunari, jakin dezala etnialik bere zabaltasun guzian, bai Euskalerrian eta bai mundu guzian, izkuntza duela oinarriarik nagusia. Ezer ez dijon, etnialik, izkuntza baino lu-tuago.

Errazoi au indartzeko aski degu begiratu bat orain berreun urte inguru etnia estudioak ari ziranetik gaur arte, Euskalerriko etnologia estudiantzen ari izan diran arrotz jakitumetatik, eunetik larogetik izkuntzari eman diola balioa, ta izkuntzar buruz egin dirala eunetik larogetik diferentzialan, gutxienez, euskal etnialeren estudioak. Beraz, orrek, beste gabe, arri jarzen digu, etnialeren aldetik, bere balioetarik erdia baino gelago izkuntzak duela.

Aski izango zala Olaetxea jaunari ortaz egin diran lanik nagusieneri "RIEV" eta "Eusko Folklore"-ren bilduak diran laneri begiratu bat ematea. Lan oiek ezagutzen dituan normalak daki gure kultura zaar guzira (gure etnia guzira) urri galditzen dala izkuntza gabe.

Uste det puntu ori argi dagoala.

Bestaldetik, euskera galduta ere Euskalerririk berdin jarraitze aldetik, Olaetxea jaunak diot teoriari jarraitki, antzerakoak izan bear ziran, euskaligoari buruz, Araba ta Bizkaiko Enkartzeloak, Errijoja, Burgos parte bat, Huesca'ko Pirineo alde, Biarri (Béarn) eta Katalunialako Ribagorzana gola ta Valle de Aran' zergaitik auek ere lenago euskera mintzaten bai ziran, bertako toponimiak eta zenbait deliturak agrian jarzen duenez, Baina ez da orreio, Aiek ez dute euskotartasunik s'ntitzen oraingo Euskalerriko geografia politikoan barnean ez daudelako. Baina, muga ori politikoa uita da, gainerako guzian kideko diralako (oituratan esan nai det). Oituraz dituzten aldiak, bizkaitar euskaldunetatik napar euskaldunetara daudenak baino aundiazoak ez bai dira Burgos'tik Huesca'ra eta Huesca'tik Bagnora.

Beste ejenplu bat; jarri alkarrekin gipuzkoar euskaldun bat eta lapurtar euskaldun bat (ta ez da bearezkoak berisolarien aurrean jarzeta); bestaldetik euskera ez dakiela lapurtar bat eta gipuzkoar bat, nai eta batak espanolez jakin eta besteak, frantsesez, ta beren artean zer nolako anafatasunak arkitzen dituten.

Oltura ta izakerak alde ortatik egitatzeko ere, ikusi besterik ez dago euskal kulturari buruz, euskera bide, betidanik alkarren artean izan diran ar-emanak. Gaur bertan ere, euskal kulturari buruz ari geran euskaldunen artean ar-eman estuak dituzte mugaren bi aldetetatik. Ta, lasal esan genezake euskera ez dakitenen artean ez dala orreisko ar-emanik mugaren bi aldetetatik. Etnologo ta euskeltzale, mola biltzen gera mugaxandik edo emendik. Ta galnerakoak, ez dute beren bilkurarik. Jakina, Miarritzeko kasino kosmopolita orretan jokoan edo izan ezlik.

Beraz, nere ustea beste bat da. Ta, gizonen artean, euskera-erdera muga aundiaro bat dala esango nuke, gure eri barnean bertan, Bidasoko muga bera baino. Muga ori, onera datozen etnologo guziaz oso ondo berberizten dakite. Orreगतिक ez det uste Olaetxea jaunaren liritzi orrek funtz aundirik duenik.

Alfortizen det, gaur, gure errian bi komunidade daudela; euskalduna ta erdiokiduna. Ghalage aldetik biak dute bizitzeko doroito berdina. Gizon bakoflaaren esaki dago (obeto esan da, eron beartzikake) bata ustea eta beste auzia; edo obeago dan bieklin ballatuz bizi-

ztea. Baina, eskubide ofizialkiak berditzak ez badituzte ere, etnia aldetik jarraitzeak du balio nagusia. Beste izkuntza, beste etnia batekoa baita. Oraingo kultura berrien aldetik erderak du bide gelago, ta bearezkoak zaigula esango nuke, Baina, orainagoko kultura berriagoak adierazten digu bilinguismoa obe dala, bata litzin ustea baino. Ta guk ezin degu lotatu Europako erribik aurreratuenak artu duten bidearen kontra. Beraz, zer da Olaetxea jaunaren esan nala? Ez jakitasuna ala jakintzasuna?

Erri bezela, etnia aldetik, euskera ez da guzira, baina euskaldunok, euskera gabe ez gera ezer. Izkuntza galduta ere erri bat katen jarraituko genuke, bai noski; oraingo Huesca, Biarri, Errijoja edo Burgos bezelatsu.

Izkaldi orretan esan dituan gaherontzeko gauzetan ez naiz sartzen. Gauzarik gelentzen bere errazoiak izango dituzte Olaetxea jaunak eta ori ez diot ukatzen. Rikortu ditazake euskera gabe ere, baina ez ordea delitara. Ta, Rik ere antzera samar arkitzen da aipatu dituan erri oietan, batez ere Biarri'netan Huesca'n, gutxienez omen bertan beste. Ta ala ere antropologia aldetik orrek ez du nai-koa indur arraza aparteko bezala jarzeteo Paria'ko Musée de l'Homme'koak oraintuz egin dituzten ezindioetan. Ez baina naioka berzikuntza, Beraz, auzentzat ere, euskera izan da gure errian arkitu duen gauzarik berberiens.

Gainera, ez det uste euskaldun izateak arrotu bear gaituanik, berak ori orreia esan badu ere, Euskera gabe ere Euskalerriko semeok arro agertu bear degula? Erri baten izabela ez da arrakerian gorabera. Erri guziaz dituzte beren gauz on berzikal, eta batera edo bestera. Ta, nere ustean, euskaldunok gure izakeraz ez genuke izan bear zertan arrotu askorik.

Unibersalidaderako ez det uste euskera izkiriago egiten gaituanik, bazirik Europarago sentitu bear ginsake gogoz kontra jarri zailgun sasi-muga bat gorabera. Ez da alperrik euskera European izkuntzarik zarrenetakoak.

Olaetxea jaunari kostako zala orain arteko etnologo guzian liritzia beera botatzeka.

Guztetzat, euskaldun izateo, bi litzin barnean dago; izan edo ez izan.

JUAN SAN MARTIN

SOBIETARRAK ETA EUSKALDUNAK

"Nedelja" izeneko errusiar asterokoak, bere 49'gn. zenbakian euskaldunak buruzko artikulu bat argitaratu du. "Baski, oskuda oni?" (Euskaldunak, nunditok?) titulopean, Aleksandr Kinknadze'k, gure izkuntza, oltura ta izakerarenakoi interes eta adiskideitasun-agiria eman die asterokoaren irakurleari.

Idazlea jeorjijarra dalarik, euskaldunen auzpegi ta dantzak ikusi ta euskera entzuzuz, bere jatorrian zegoela iraditu omen zitzaion. Berak dionez, itz berdin asko arkitu omen ditu euskera ta jeorjijarren artean.

Euskaldunen kemen eta bulartutasunaz mintzo dalarik, azkeneko gudatean aien sinpatia ez ezik, errespetoa ere irabuzteko lain izan gihala, idazten du. Espirituz aien anai gihala, irakurri omen zuan aldi artan. Beste zerbait geiagoz ere ez ote kintzake izan? galdetzen du jeorjijarrak.

Gero, Akrem Dzafar, izkuntzulariaren itzak aipatzen ditu: "Euskaldunen artean linguistika-espeditzio serio bat egiteko ordua etorri dala, iruditzen zait".

"Ekonomiceskaja Geografija Zarubeznich Stran" (Moskua, "Prosvetseniye" 1905) liburuaren egileak euskaldunak kaukasoar familian sartzeko zalantzarik ez omen du izan. Ikusketa-txango onen ondoren, bear bada, idazle orren aurre-ikusmenaz arritu bearezan izango gihakela, uste du Kinknadze'k. "Egitaren" zai geratzen dan bitartean, itz onek jeorjieraz eta euskera: ots berditina duala esanzak bukatzen du artikulu.

X. MENDIGUREN

EUSKALERRIA



Mapa eunon artzeko orduan —arritzeko da baino— galdera au etorri zait burura; euskaldunen artean zenbaitetik jakitago al dute gure Erriko probintziak? Eta zenbat kilometro luze-zabalean dituzte? Jende pihla bat izango ez dakitena. Joan diran asteetan Telebisioari egon bazera—argi ikusiko zendun zer-nolako ezjakitia dagon euskaldunen artean. Eta gure Erriko bitanleak zenbat diran jakin nai ba-dago, zer? Gure gaztedia esnatzen ari dala? Oraindik —uste degu— oso gutxi. Kultura bear du gure Erriak.

Udara joan da eta oporraldiak ere bai. Gure aur eta gasteak eskolara joaten asiko dira. Ernartzeko al dute gurazo auek beren semeetan kultura ikasitako gogoa? Mugituko al dira ain euskaldun jator bezelakoak beren burua artzen duten gazte oiek, euskal-kulturaren alde zerbait prest egiteko? Azieritu beza norberak zer egin zuan igaz eta nai bedi egitako proposamendu ta ekintzak egiten datorren ikastaroako, protuzkoak izan dituzten Euskalerritari eta euskal-jakituzari.